

	Gutxienerako estandarrak (MS)
	PROBAREN ERAIKUNTZA
1	Azterketaren helburua eta erabilera-testuingurua deskriba daitezke, baita azterketa zein populazio-motarentzat aproposa den ere.
2	Azterketa konstruktua teoriko batean oinarrituta dago, adib. gaitasun komunikatiboko eredu batean.
3	Azterketa-egileak hautatu eta prestatzeko irizpideak daude. Adituen irizpenak baliatzen dira probak eraikitzeko eta azterketak berrikusi eta birzuzentzerakoan.
4	Azterketa paraleloak pareko izaten dira, deialdiz deialdi, honako alderdi hauekin: edukiak, egonkortasuna, kontsistentzia eta mailaketa-langak.
5	Aldarrikatzen bada azterketak kanpoko erreferentzia-sistema batekin lotura duela (adib. Europako Erreferentzia Marko Bateratua), lotura horren frogak erakuts daitezke.

	ADMINISTRAZIOA ETA LOGISTIKA
6	Azterketa-zentro guztiak azterketa administratzeko prozedura bateratu, garden eta finkatuen arabera hautatzen dira. Hori nola egin jakiteko arauak eskuragarri dituzte.
7	Azterketa-dokumentuak egoera bikainean eta segurtasuneko garraio bidez heltzen dira baimendutako azterketa-zentroetara. Azterketen administrazio-sistemak dokumentu guztien kudeaketa segurua eta jarraigarria dela ziurtatzen du. Prozedura-sistema guztien konfidentzialtasuna berma daiteke.
8	Azterketen administrazio-sistemak laguntza-sistema egokiak ditu (adib. telefonoa, web-zerbitzuak eta abar).
9	Emaitzen eta ziurtagirien segurtasuna eta konfidentzialtasuna behar bezala babesten dira, indarrean den datuen babeserako legeria aintzat hartuta. Azterketariak informaturik daude datuok ezagutzeko dituzten eskubideez.
10	Azterketa-sistemak laguntza ematen die beharizan bereziak dituzten azterketariei.

	ZUZENTZEA ETA KALIFIKATZEA
11	Zuzenketa behar bezain zehatza eta fidagarria da, azterketaren helburua eta azterketa-mota kontuan hartuta.
12	Dokumentatu eta azaldu egin daiteke nola gauzatzen den zuzenketa, nola ateratzen den fidagarritasun-kalkulua eta, orobat, nola biltzen eta analizatzen diren aztertzaileen errendimendu-datuak, proba idatzi eta ahozkoetan.

	PROBEN ANALISIAK
13	Datuak bildu eta analizatu egiten dira, azterketarien lagin egokia eta adierazgarria hartuta. Horien ebaluazioa azterketako trebetasunen arabera izan dela ziurta daiteke, eta ez faktore batzuek eragindakoa (hala nola lehen hizkuntza, sorterrria, generoa, adina eta jatorri etnikoa).
14	Item mailako datuak biltzen dira (adib. probaren zailtasuna, diskriminazioa, fidagarritasuna eta neurketa-errore estandarra kalkulatzeko), azterketarien lagin adierazgarria hartuta eta analizatuta.

	KOMUNIKAZIOA PARTE-HARTZAILEEKIN
15	Azterketen administrazio-sistemak proben emaitzak komunikatzen dizkie azterketariei eta azterketa-zentroei (adib. euskaltegiak), azkar eta argi.
16	Parte-hartzaileei informazioa ematen zaie azterketaren testuinguruaz, helburuaz eta erabilera egokiaz, edukiez eta azterketa-emaitzen fidagarritasun orokorraz.
17	Parte-hartzaileei behar adina informazio ematen zaie emaitzak interpretatzen laguntzeko eta horiek behar bezala baliatzeko.